

EUSKAL LORE-JOKOEN KRONIKA

Uztailak 27

Uztailaren 27an Gipuzkoako Diputazioa, Arabako diputatu nagusia, Donostiako Orfeoia eta Euskal lore-jokoen lehendakaria eta idazkaria iritsi ziren Elgoibarrera.

Hiribildua apainduta aurkitzen zen eta giro oso ona nabarmentzen zen.

Etorritakoei eskainitako harrera, sutsua izan zen.

Geltokian zeuden bertako diputatuak. Danborilteroek eta udal musika bandak “Gernikako arbola” jo zuten, jendetza handia hurbiltzen zen bitartean.

Altzolatik etengabe txaloak entzun ziren, eta suziri eta zapartada ugari aireratu ziren.

Nekazal eta Ganadu erakusketak aparteko harrera izan zuen.

Arratsaldeko zazpi eta erdietan abestu zen San Bartolome parrokian Salbe solemnea, Idefonso Lizarriturri musikagile elgoibartarra eta Donostiako San Bizenteko organo joleak idatzia. Donostiako Orfeoiak abestu zuen hobeto ezin, Erkizia jauna bakarlarria nabarmenduz.

Lizarriturri jaunak zorion asko jaso zituen.

Donostiako Orfeoiaren kontzertua udaletxeko aretoan izan zen, berau jendez beteta egon zelarik. Aretoaren entzumen baldintzak onak ez izan arren, Orfeoia beti bezala egon zen, maila gorenean, lan guztiak miresgarri abestuz. Egitaraua guztiz euskalduna izan zen:

Lehendabiziko zatia

- 1- Txakolin, txakolin, Arinena.
- 2- Prasku Txomin, Santestebarena.
- 3- Nere Andrea, Santestebarena.

Bigarren zatia

- 1- Euskal erri maiteari, Jose M^a Usandizaga gaztearena(). Orfeoiak maisutasun handiz abestu zuen.
- 2- Entzuleak, Usandizaga han bertan zegoela jabetu zirenean, aurrera joan zedin eskatu zioten eta ahalegin handiak egin ondoren Probintziako diputatuak lortu zuten. Musikagile gazteari txalo zaparrada bat eskaini zitzaion. Orfeoiak “Gernikako arbola” abestuz, eta entzuleak isiltasun handiz eta zutik zeudelarik, kontzertua bukatu zen.

Gauez musika egon zen plazan, eta oso giro ona egon zen.

Argiztapena oso artistikoa izan zen. Diputazioa, Elgoibarko herriak egindako ahaleginaz oso pozik gelditu zen

Uztailak 28

Goizetik, foruen usadioz, Prozesioa izan zen, aurretik danborilteroak joan zirelarik. Ondoren Loiolako San Inazioen irudia zeramaten, mikeleteek babestuta, eta atzetik Ama Birjinarena, mikeleteek inguratuta hau ere. Zutoihala Bergara barrutiko diputatuak (Pedro Arrillaga jaunak()) zeraman eta lokarriak Segura eta Mendizabal diputatuak zeramatzen.

Carrion, Velasco, Salazar, Itarte eta Aranguren jaunek, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko diputazioko lehendakariak eta Gipuzkoako diputazioko lehendari-ordeak Elgoibarko alkatearekin batera osatu zuten prozesio-burua.

Segidizioan parrokiako apaizak, zenbait diputatu, zinegotziak, nekazaritzako batzordea, diputazioko idazkaria, Lore-jokoen batzordea eta mikeleteen burua zihoazen.

Prozesioaren ibilbidean zehar danborilteroak eta udal musika bandak San Iñazoren martxa jo zuten.

Ondoren Meza nagusia ospatu zen, Elizbarrutiko apezpiku jauna pontifikalez arituz eta Donostiako Orfeoiak Rigaren meza abestuz. Laskibar aitak euskaraz egin zuen sermoia, ohitura eta usadio onak gomendatuz.

Arratsaldez, Donostiako Orfeoiak herri-kontzertu bat eskaini zuen plazako kioskotik, eta jendeak berotasun handiz txalotu zuen.

Arratsaldeko lauretan Nekazal eta Ganadu erakusketaren lehiakideei sariak banatu zitzaizkien, ekitaldia seiretan bukatuz. Ganadu erakusketa Gipuzkoan egin den garrantzi handienetarikoa izan zen, gure lurralde historikoko abere askoaz gain Bizkaitik buru bikainak ekarri baitira.

Sari banaketa egin ondoren “aurreku” ofiziala izan zen. Aurrekularia Segura diputatu jauna eta atzekularia Castañeda jauna izan ziren, soka bertako andereño lirainak zeudelarik. Aurrekulariaren bikotea Angeles Etxeberria eta atzekulariarena Felisa Unzueta izan ziren

Elgoibarko dantzari txikiek Jose Lorenzo Pujana dantza-maisuaren zuzendaritzapean, oso ongi dantzatu zituzten dantza berri batzuk, Foruen plazan.

PELLO ARRIETA SORAIZ

Elgoibarren 2005eko urriaren 20an